



Juan Carlos RUIZ | ARGATKI PRESS



IKUSMIRA

ERRETIRATZEKO ORDUAN ABIATZEN DIRENAK

Gehienak etxera erretiratzin direnean, badira lanera abiatzen direnak. Gure portue-
tan ilunabarrak agintzen die arrantzaleei itsasora abiatzeko ordua. Ilunak, hotzak
eta gauak gainontzekoak etxeko epelera uxatzen dituen ordua, hain juxtu. Azkena
etxeratzen denak kanpotik ikusten du besteen etxeko epela. Argi hori epelak han-
hemenka piztuta. Batzuk isiltasunean afaltzen; besteak iskanbilaka haurrak bain-
eratik ezin atera; besteak xuxurlaka hizketan, dagoeneko lo dagoena ez esnatzeko;
liburu bat irensten argi txikiarekin besteak... Arrantzaleek ere badute argi hori epe-
la, zeruak pizten diena, gauero berria eta gauero desberdina. Zeruaren koloreak ez
direlako Pantonean kabitzen. amagoia.mujiika@gaur8.info

amagoia.mujika@gaur8.info